

## 2021ean 200 profesionalak parte hartu dute Gazteen Euskal Behatokiak antolatutako ikastaroetan



***Ikastaroen batez besteko balorazioa, 0tik 10erako eskalan, 8,7 puntukoa izan da***

2021ean, Gazteen Euskal Behatokiak **10** prestakuntza-ikastaro antolatu ditu, aurrez aurre eta on-line.

### **Aurrez aurreko ikastaroak**


- Gizon nerabeekin berdintasun eta maskulinitatearen gaineko lana egiteko tresna pedagogikoak (**bi edizio**, bata Bilbon eta bestea Donostian)
- Sormena eta talde-lanerako teknikak
- Nola prebenitu Beldur Barik jarrerarekin indarkeria matxista gazteen artean
- Zibersegurtasuna: gure ekintzen erantzukizuna geure gain hartzeko erronka
- Jolasaren pedagogia
- Gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko estrategiak hezkuntza formal eta ez formalean (**lau edizio**, bi Bilbon eta beste biak Donostian)
- Zientzia eta teknologiarekin trasteatzen
- Sexu-heziketa: kalitatezko harremanen alde

### **Ikastaroak online**

- Aniztasun sexuala: gizon eta emakume izateko era anitzak
- Europako gazteria-proiektuen diseinua eta kudeaketa. ERASMUS+GAZTERIA eta EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOIA programen berrikuntzak 2021-2027 Europako diru-laguntzen esparruan (**bi edizio**)

Ikastaroen alderdi jakin batzuei 0tik 10erako eskalan emandako balorazioak honako hauek izan dira:

**Gazteen Euskal Behatokiak 2021ean antolatutako ikastaroen balorazioak**  
(batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta*